

## Ideiaren deskribapena

Gure ideia etorkizunari eta gizarte-hobekuntzari bideratutakoa da, izan ere, plastikoaren birziklapena edo berrerabilpena gure ingurumeneko arazo larrienetako bat murrizten laguntzen du.

Hasieran, ideia zaparrada bat bota genuen, beti ere, gizartearen beharrak, ideia berritzaileak eta bakoitzaren abileziak eta esperientziak kontuan hartuz. Adibidez, produktu berritzaileak, teknologikoak... atera ziren hasierako ideia bezala. Hala ere, zerbitzu bat aukeratzea erabaki genuen. Behar indibidual bat ez ezik, behar kolektibo bat asetzeko asmoz. Ideia nagusia, jendeak birziklatzen duen plastikoa eskuratu eta material edo produktu ezberdinak eraikitzea da. Egitura ezberdinetako objektu askotarikoak egitea da gure helburua.